

nolako txakurra, halako jabea



barrendik 200-300

1A maila

ikaslearena

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Parte-hartzaileak: **Jone Aboitiz** (AEK)
Errealizazio didaktikoa: **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)
Alex Mungia (HABEko teknikaria)
Agurtzane Maiz (HABEko teknikaria)

© HABE 2004. ISBN: 84-95827-66-2

Legezko Gordailua: VI-362/04

Inprimaketa: Imprenta SACAL

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeari (AEK) materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatze gintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Iñaki Gozalo, Igor Astigarraga eta Josetxo Sastre.**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

— Alcantara, R. *Tento eta telebista* (ipuina). Ibaizabal. 1999.

— Goscinny, R. Uderzo, A. *Asterix eta Kleopatra* (komikia). Elkar.

nolako txakurra, halako jabea

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

ikaslearena

AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

2. Atazak

A. Multzoa

- | | |
|--------------------------------|---|
| 1. Ataza: Nondik dator? | 8 |
|--------------------------------|---|

B. Multzoa

- | | |
|--|----|
| 2. Ataza: Txakurra zertarako? | 11 |
| 3. Ataza: Lukas txakurra | 14 |
| 4. Ataza: Elkarren antzik ba ote? | 18 |

C. Multzoa

- | | |
|----------------------------------|----|
| 5. Ataza: Tento txakurra | 21 |
| 6. Ataza: Txakur ezagunak | 25 |

3. Material osagarria

- | | |
|-----------------------|----|
| 1. Idefixen abenturak | 31 |
|-----------------------|----|

4. Autoebaluazio-orria

5. Eranskinak

- | | |
|--|----|
| 1. Txakurra zertarako? Fitxak | 34 |
| 2. Elkarren antzik ba ote? Argazkiak | 36 |
| 3. “Asterix eta Kleopatra” komiki-zatiak | 38 |

1.


LAN-EGITASMOA

Gure lagunik onenak omen dira. Gizagaixoak! Beti erabili izan ditugu gure lanetan laguntzeko, eta, askotan, ez diegu merezi izan duten tratua eman. Hala ere, ezin ukatu gure arteko harremana estua dela, gure etxeetan sartu eta gaur egun arte animalia leial hau gure bizitzako parte bat izatera heldu da. Garaiak aldatu ahala, bestalde, animalia honekiko harremana ere aldatu egin da, onerako ala txarrerako. Badira batzuk ile-apaindegira eta baita psikiatrarengana ere eramaten dituztenak, eta, oporretara joaten direnean, hoteletan uzten dituzte. Beste batzuek, berriz, kalean edo mendian uzten dituzte, etxean edukitzeaz aspertzen direnean.

Hau da hau bizimodua! Beti gure menpe! Hori bai, guri esker haietako batzuk oso ezagun egin dira mundu osoan: batzuk espazio-ontzietan joateagatik, beste batzuk Hollywoodeko filmetan agertzeagatik, eta beste batzuk arratoi baten maskota izateagatik.

Honez gero jabetuko zinen bezala, txakurrez ari gara. Eurei buruz hitz egingo dugu ikastunitate honetan: jartzen dizkiegun izenak, jabeekin dituzten antzekotasunak, txakur ezagunen biografiak..., aipatuko ditugu oraingoan. Zer iruditzen zaizu txakurra noiz agertu zen argitzen badugu lehendabizi? Has gaitezen, bada!

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



1. ATAZA: NONDIK DATOR?



Lehenengo ataza honetan ikastunitatea aurkeztuko dugu. Gainera, gai honi buruzko testu laburtxo bat irakurri, eta gauza gehiago jakingo ditugu.

- Film, komiki edo telesaioetako zatiak ikusiko dituzu bideo-pasarte batean. Taldeka, adierazi film edo telesaio horiek zein antza duten elkarren artean:





- Guztion artean hitz egin: zein da irudi guztien arteko lotura? Zein izango da, beraz, ikastunitate honetako gaia?

- Zein da, zure ustez, txakurraren jatorria? Esan, zuen iritziz, egia ala gezurra den ondorengo esaldietan adierazten dena. Gero, testua irakurri, eta zure usteak zuzenak ziren ikusi:

1. Txakurra tximinoarengandik dator.
2. Gutxi gorabehera, lehenengo etxe-txakurra orain dela 12.000 urtekoa da.
3. Orain dela 40 mila urte, otsoa gizakiaren hondakinak jaten hasi zen. Horregatik, otsokume batzuk mantsotu egin ziren eta etxe-txakur bihurtu.
4. Australopitekusa izan zen txakur-mota batzuk hazi zituen lehenengoa.
5. Erromatarren garaian txakur-mota bakarra zegoen: galgoa.
6. Antzinako munduan ez zituzten txakurrak ezertarako erabiltzen. Libre bizi ziren basoetan.

- Orain, txakurraren jatorriari buruzko testua irakurri eta alderatu: asmatu al duzue egia ala gezurra zen aurreko esaldietan adierazten zena?

Txakurraren jatorria

- Etxe-txakur guztiak otsoarengandik datoz, Daniar handia (otsoa baino askoz handiagoa dena) eta Txiguagua (askoz txikiagoa) barne.

Lehenengo etxe-txakurra orain dela 12.000 urtekoa da, gutxi gorabehera. Azken Izotz Aroan, duela 40 mila urte inguru, gizakiak, otsoak bezala, ehizarako taldeetan elkartuta bizi ziren. Seguru asko, otsoak gizakiak uzten zituen hondakinak jaten hasi ziren, eta, horrela, otsokume batzuk mantsotu, eta handik belaunaldi batzuetara etxe-txakur bihurtu ziren.

- Antzinako Egipto eta Mendebaldeko Asiakoak izan ziren txakur-mota batzuk hazten lehenengoak; adibidez, artzakurrak eta galgoak. Erromatarren garaian, gaur egun ezagutzen ditugun txakur-arraza gehienak zeuden. Galgoak eta beste txakur batzuk erabiltzen zituzten ehizarako, eta artzakur edo 'mastin' handiak borroka eta gerrarako. Hau da, antzina txakurrak edukitzen zituzten ehizarako, artzaintzarako, zaintza-lanak egiteko, kiroletarako eta konpainia egiteko.

- Irakasleak testuan aipatzen diren bizpahiru hitz emango dizkizu. Hitz horiei buruz zer irakurri duzun azaldu behar diezu zure ikaskideei.

- Ikaskide guztien azalpenak entzun, eta, gero, erantzun: denok ulertu duzue gauza bera?
- Orain, hurrengo galdera hauen erantzunak azpimarratu testuan:

1. Orain dela 40 mila urte inguru, gizakiak zertarako bizi ziren taldeetan elkartuta?
2. Erromatarrek zertarako erabiltzen zituzten galgoak eta beste txakur batzuk?
3. Erromatarrek zertarako erabiltzen zituzten artzakur handiak?
4. Antzina zertarako edukitzen zituzten txakurrak?



- Orain, berriro ikusiko duzu lehengo bideo-pasartea. Ikusten duzun bitartean, idatzi hemen telesaio, film edo komiki horietan agertzen diren txakurren izenak. Ondoan, txakur bakoitzaren jabearen izena jarri. Bideoa ikusi eta gero, taldeka azaldu: pertsona horiek zertarako nahi dute txakurra? (Banan-banan zehaztu).

TXAKURRAREN IZENA

JABEAREN IZENA

**JABEAK ZERTARAKO
NAHI DU TXAKURRA?**

2. ATAZA: TXAKURRA ZERTARAKO?

Txakur-jabeez eta txakurrez hitz egingo dugu ataza honetan: jendeak zertarako nahi zuen txakurra garai batean eta gaur egun? Eta zein izen jartzen dio txakurrari? Zergatik?... Hori guztiori jakiteko, inkesta bat egingo dugu gure inguruan. Irratian esandakoa ere entzungo dugu, gero, geure sailkapena osatzeko.

- Taldeka jarri, eta erantzun hurrengo galdera hauei:



Garai batean zertarako eraman zuten txakurra etxera?

...

Orain zertarako edukitzen dugu txakurra?

...



- Orain, besteen iritzia jakingo dugu; horretarako, inkesta egin euskaltegian.

Baduzu txakurrik?	Zertarako behar duzu txakurra?	Zein izen jarri diozu txakurrari?	Zergatik jarri diozu izen hori?
1			
2			
3			
4			
5			
6			

- Taldeka jarri, eta erantzunak elkarri kontatu.
- Ea taldeetan bi zerrenda hauek osatzen dituzuen!

Txakur-jabeen tipologia	Txakur-izenen tipologia
- Txakurra-rako / -tzeko behar dutenak. - - - - - - - -	- Euskal izenak. - - - - - - - -

- Taldeetan egindakoa beste ikaskideei azaldu, eta, guztion artean, sailkapen bakarra adostu.
- Orain, grabazio bat entzungo dugu. Lehenengo zatian, txakur-jabeei buruz arituko dira, eta, bigarrenean, txakurren izenei buruz. Binaka jarrita, batek 1. eranskinetik A ikaslearen fitxa hartuko du, eta besteak B fitxa. Fitxa bakoitzean datu batzuk falta dira. Grabazioa entzun, eta datuak jaso behar dituzue. Gero, bakoitzak bere datuak ondo jaso dituen begiratuko du bestearen fitxan.





- Hurrengo esaldi hauetan zati batzuk falta dira. Laukiaren azpian topatuko dituzu falta diren pasarteak. Beraz, hortik zati egokiak aukeratu, eta esaldiak osatu behar dituzu.

1. Garaiak aldatzen dira eta-n izenak ere bai.
2.-n pertsonak baserritarrek eta zinpeko zaindariak dira, adibidez.
3. Txakur beldurgarrienak-n txakurrak dira, etxeak zaintzen dituztenak.
4.-en jendea ere badago: artzainak, ehiztariak...
5. Txakur batzuk-en jendea harrapatzen dute aireportuetan.
6.-en jendea ere badago.
7. Hurrei oparitu baina-en txakurrak ere badaude.
8.-n txakurrak inork ez ditu maite.

FALTA DIREN PASARTEAK:

- Lanerako txakur biziak behar dituzte
- amak zaintzen ditu
- txakurrei jartzen dizkiete
- katuak dirudite
- maleta drogaz beteta dakar
- Atarietan egoten dira
- mingain luzeko txakurrak gustuko ditu
- Zainketa-lanetarako txakur beldurgarriak erabiltzen dituzte

3. ATAZA: LUKAS TXAKURRA



Txakurra eta gizakiaren artean oso harreman sendoa izan ohi da, gaur egun. AEBetan txakurra milioi bat dolarrengatik salduko luketen galdetu diote jendeari. Zuek zer uste duzue erantzun duela gehiengoak? Horren berri izango dugu, irratsaio bat entzunda. Gaia Euskal Herrira hurbiltzeko, txakur-hezitzaile baten iritzia ere entzungo dugu, eta donostiar bati bere txakurratikat egindako diru-eskaintzari buruz ere hitz egingo dugu. Zuk salduko al zenuke zure txakurra milioi bat euroren truke?

- Amerikako Estatu Batuetan hurrengo galdera hau egin diote jendeari:



**milioi bat dolar emango balizute,
salduko al zenuke txakurra?**

- Inkesta horren emaitza zein izan den jakiteko, grabazio bat entzungo duzue. Zer iruditzen zaizue?

- Orain, Jon Kerejeta txakur-hezitzaileak horretaz duen iritzia jakingo dugu. Grabazioa entzun baino lehen, pertsona horrek esan dituen esaldi batzuk irakurriko dituzue, taldeka, eta, zuen ustez, bere iritzia zein izango den esan behar duzue:

• "Txikitatik izan dut afizioa"

• "Nik zakurrei heziketa ematen diet, eta zakurrek niri guztia ematen didate"

• "Jendearen konportamendua animaliekin lehen sanoa zen, baina orain ez"

• "Animalien kontu hauek asko exajeratu dira"

- Grabazioa entzungo dugu. Hori al da zuen taldean pentsatu duzuen? Azaldu beste guztiak.
- Hurrengo galdera hauei erantzungo diezue, denen artean entzundakoa laburbiltzeko:

• Noiz eta nola hasi zen Jon txakurrak hezten?

• Zer ematen diote txakurrek Joni?

• Zer iruditzen zaio Estatu Batuetan egindako inkesta? Zergatik?


• Zer pentsatzen du animalien gorabeherei buruz? Zergatik?

• Bere animaliengatik dirutza handia ematen badiote, zer egingo du Jonek?

- Grabazioaren beste zati batean Lukas txakurraren istorioa ezagutuko dugu. Entzun aurretik, istorioaren aldaera bat irakurriko duzue. Zeintzuk dira, zuen ustez, bertan dauden datu faltsuak?

Auzokide batek txakur bat oparitu zion Amaia Trueba donostiarrari. Amaiari ez zitzaizkion txakurrak batere gustatzen, baina onartu egin zuen. Txakurra galgo itsusi bat zen, eta egunero eramaten zuen hondartzara korrika egitera. Jendeak oso txakur itsusia zuela esaten zion Amaiari.

Behin batean, Amaia eta txakurra hondartzan paseatzen zebiltzala, ezezagun bat Amaiarengana hurbildu eta 10 milioi euro eskaini zion txakurratik. Amaiak hasieran baietz esan zion, baina, gero, ezezagun horrek txakurra borrokarako nahi zuela jakin zuen, eta ezetz esan zion, ez ziola txakurra salduko.



- Aurreko grabaziotik esaldi batzuk atera ditugu. Ea oker daudenak zuzentzen dituzun!

1. Hemendik bizimodua atera ahal zen ikusi nuen.
2. Uste dut animalien mundu hau nahiko ustelduta dago.
3. Lehen, txakur batek koska egiten bazion ume bati, amak esaten zuen umeak zerbait egingo zuela.
4. Ezezagunak esan zuen Lukasek oso gorputz ona zeukan.
5. Ezezagunak esan zuen Lukas gaztea zela eta ikusten zela txakur ona izango zen.
6. Ehizatzeko nahi zuen esan zuen.
7. Txakurratik milioi bat ematen zidala esan zidan.
8. Hasieran txantxetan zela uste nuen.
9. Lukasen semeengatik kilo erdia emango zidaten esan zidan.
10. Hasieran ez nuen uste halako oparia izango zen.
11. Beste emakume batek esan zidan bera erakusketetan egoten zen, eta oso txakur ona zen.

- Ondoren, lotu hitz hauek, eta, entzun duzunari jarraiki, osatu esaldiak:

1. Txakur-hezitzailea / iruditu / inkesta / normala
2. Ezezaguna / galgoa / esan
3. Galgoaren jabea / saldu / esan



4. ATAZA: ELKARREN ANTZIK BA OTE?



Oraingoan, txakur-arraza batzuk ezagutuko ditugu. Internet bidez zabaldutako lehiaketa bat ere ikusiko dugu, eta txakurrek jabeen antza duten ala ez jardungo dugu (ala jabeek dute txakurren antza?). Argazki batzuen inguruko usteak eta arrazoiak emango ditugu.

- Hasteko, bi talde egingo dituzue: A taldea eta B taldea. 2. eranskinetik argazki-fitxa bat hartu (A fitxa edo B fitxa). Txakurren argazkiak daukazue fitxetan. Argazki batzuen azpian zein arrazatakoak diren jartzen du, baina, beste batzuetan, ez. Zuek daukazuen fitxan falta diren arrazak idatzi behar dituzue. Hemen duzue zerrenda, aukeratu ahal izateko:

A TALDEA	B TALDEA
<ul style="list-style-type: none"> • Kanitxea • Dobermana • Ihasa apsoa • Pinscherra • Cocker spaniel amerikarra • Setter irlandarra • Galgoa • Alaskan mamalutea • Chihuahua • Bull terrierra 	<ul style="list-style-type: none"> • Teckela (dachshund edo saltxitxa-txakurra) • Lebrek afganiarra • Pekinesa • Shar peia • Basset hounda • Cocker spaniel ingelesa • Skye terrierra • Bulldoga • Colliea • Dalmata

- Orain, A taldekoei irakasleak "Zein txakur daukat? (1)" emango die, eta B taldekoei "Zein txakur daukat? (2)". Galdera horri emandako erantzunak irakurri, eta, gero, adierazi: zuen ustez, zeintzuk irabazi dute lehiaketa? Zergatik?

- Binaka jarri, A taldeko bat eta B taldeko beste bat, eta taldean esandakoa kontatu. Irakasleak txakurren argazkiak emango dizkizue: zuek uste zenutena al zen txakurra?
- Hormetan beste lau argazki ikusiko dituzue: C, D, E eta F argazkiak. Zeintzuk ote dira pertsona horien txakurrak? Idatzi zuek uste duzuen papertxoetan, moztu eta argazkiaren azpian itsatsi. Arrazoiak ere jarri.



.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....



.....

.....

.....

.....

- Esan esaldi horietan zer dagoen gaizki, eta ondo idatzi (a). Gero, beste modu batean idatzi (b).

1. Nire ustez, kanitxe bat izan daitekeela.

- a.
- b. Uste dut-(e)la.

2. Nik uste dut andre honen txakurrak teckela izan behar du.

- a.
- b. Nire ustez,

3. Ia ziur nago teckela da.

- a.
- b. Ia seguru dakit-(e)la.

4. Andre hau, seguru asko, doberman arrazako txakurra izango du.

- a.
- b. Ia ziur nago-(e)la.

5. Afganoaren antzekoa da iruditzen zait.

- a.
- b.-(e)la ematen du.

6. Uste dut teckela da, antzekoa iruditzen dit.

- a.
- b. Pentsatzen dut-(e)la, antza daukala uste dut.

7. Kanitxea eduki daiteke, baina batek daki!

- a.
- b. Seguru asko, baina auskalo!

8. Arraza txikiko txakurra dauka iruditzen zait.

- a.
- b. Uste dut-(e)la.

9. Basset hound-a eduki dezake, baina ez uste dut, uste dut teckela edukitzeko itxura dauka.

- a.
- b. izango du seguru asko, baina ez dut uste,-(e)la ematen du.

10. Seguru nago cocker amerikarra da.

- a.
- b. Argi dago-(e)la.

11. Cocker amerikarra izan behar du, hori behintzat seguru nago.

- a.
- b. argi dago.

12. Neskaren txakurra urre koloreko cocker spaniel ingelesa da. Argi dago orrazkera horrekin ezin da beste bat izan.

- a.
- b. Seguru nago-(e)la

13. Cocker amerikarra da. Ezin da beste arraza batekoa izan dela.

- a.
- b. Ezinezkoa da

14. Argi dago neskaren txakurra cocker spaniel ingeles argia da.


- a.
- b. Seguru nago-(e)la.

15. Seguru nago cocker spaniela izango da.

- a.
- b. Argi dago-(e)la.

16. Oso oker ez banabil, cocker ingelesa iruditzen dit.

- a.
- b. Ez dakit seguru, baina ematen du.



• Forma horietatik azpimarratu oso ziur zaudenean erabiltzen duzun bat, erabat ziur ez zaudenean erabiltzen duzun beste bat, eta zalantza handia duzunean erabiltzen duzun beste bat. Guztion artean jardun horretaz.

5. ATAZA: TENTO TXAKURRA



Euskal Herrian txakur ezagunik ba ote dugu? Zer uste duzue zuek? Zeintzuk izan daitezke gure txakur ezagun horiek? Hemen bakarrik ezagutzen ditugu, ala munduan ere ospetsuak dira? Eta Euskal Herriaren barruan denok ezagutzen ditugu txakur horiek, ala batzuek baino ez?... Horrelako kontuez hitz egingo dugu ataza honetan.

- Hurrengo galdera hauei erantzun denon artean:

- Euskal Herrian ba al dago txakur ezagunik? (Euskal Herrian jaio, edo modu batean ala bestean hemen bizi direnak).
- Hemen bakarrik ezagutzen ditugu, ala munduan beste lekuren batean ere ezagutzen dituzte?
- Hemen, guztiontzat dira ezagunak?
- ...

- Euskal Herrian —batzuentzat, behintzat—, ezagunak diren bost txakur ditugu hemen. Ea esaten diguzun zergatik diren ezagunak (zutabeak lotu).

TXAKURRAREN IZENA	ZERGATIK DA EZAGUNA?
BANBULO	Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazozen txakurra delako, eta haiekin ibiltzen delako plazaz plaza. Kanta bat ere badauka.
TENTO	Oso kanta ezagun bateko protagonista delako. Txikitatik ezagutzen dugu denok, edo ia-ia denok. Txuri-beltza da.
PUPPY	Bernardo Atxaga idazlearen istorio batzuetako protagonista da txakur hau. Gainera, antzezlan bateko protagonista ere bada, eta, beraz, hau ere herriz herri ibiltzen da.
PINTTO	Umeentzako ipuin-bilduma bateko protagonista da hau. Gorabehera eta pasadizo asko gertatzen zaizkio.
BELTZI	Guggenheim museoko zaindaria dugu txakur hau. Mundu guztian da ezaguna, eta, batzuetan, jantzia aldatzen diote.

- Grabazio bat entzungo duzue, eta aurrez pentsatu duzuenarekin alderatu behar duzue.
- Hemen dituzu Tonto txakurrari buruzko ipuinen izenburuak eta azalen marrazkiak. Izenburu batzuk osorik daude, baina beste batzuk ez. Zuek osatu behar dituzue, marrazkiei begiratuta.

	1. Tonto eta bere laguna		7. Tonto eta
	2. Tonto eta bere hortza		8. Tonto eta
	3. Tonto eta zakur handikotea		9. Tonto eta
	4. Tonto eta bere itzala		10. Tonto eta
	5. Tonto eta ekaitza		11. Tonto eta
	6. Tonto eta bere lehengusua		12. Tonto eta

- Grabazio bat entzungo duzue. Tentori buruzko ipuin batzuk laburtuko dituzte bertan. Zeri buruzkoak dira?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Orain, begiratu ea zerrendan jaso duzuna eta lehen idatzi dituzuen izenburuak bat datozen.
- Hemen duzu Tentoren istorio bat. Kontua da, gure ustez, hobe dela iraganean kontatzea; horretarako, aditz-formak aldatu behar dira. Ondoko hauek erabil ditzakezue ordezkatzeko:


zen, ziren, zuen, zituen, zuten, zituzten, zeukan,
zebilten, zebiltzan, zion, zioten, zizkioten



Azkenaldi honetan, Tento oso arraro dabil. Bere lagunekin jolastera irten baino nahiago izaten du telebista ikusi.



Ordu asko ematen ditu etxean, telebista-pantailatik begirik kendu gabe. Egun batean jakin du aurpegi berrien bila dabiltzala iragarki baterako.



"Telebistan agertu nahi nuke!" esan dio bere buruari ilusioz beterik. Eta, inori ezer esan gabe, frogak egingiten dituzten lekura abiatu da.



Han, ezusteko bat hartu du, eta ez oso atsegina, gainera. Frogak egin zain daudenen ilara oso luzea da.



Ordu batzuk zain egon ondoren, Tentoren txanda iritsi da. Orduan, ibiltzeko, zaunka egiteko... eskatu diote, eta argazkiak atera dizkiote.




Denen artetik bera aukeratu dute, oso ondo egin duelako. "Hau zortea daukadana! Azkenean, telebistan azalduko naiz!" pentsatu du.



Hurrengo egunean, iragarkia grabatzen hasi dira. Tento zoriontsu sentitzen da, baina haren pozak ez du luzaroan iraun.



–Ipar Poloan zaudela eta hau zure etxea dela imajinatu behar duzu - esan dio zuzendariak. Baina hura margotutako horma arrunt bat besterik ez da.



Eguzki indartsu batek joko balu bezala egin behar du. Baina, bai zera!, argi-foku bat besterik ez da eta.



Izozki bat miazkarazi diote. Eta miazketa bakoitzaren ondoren, zera esan behar du: –Bai gozoa! Ederra dago! Baina izozkiak oso gustu txarra dauka.



Tento zeharo nazkatuta itzuli da etxera. Iritsitakoan, telebistaren aurrean jarri eta hauxe aurpegiratu dio: –Gezurria, halakoa!



Eta, besterik gabe, kanpora irten da. Lurra zapaltzean, konturatu da eguzkia, zuhaitzak, txoriak, dena benetakoa dela. Orduan, Tentok berriro ere jolasteko gogoia sentitu du.

6. ATAZA: TXAKUR EZAGUNAK

Ba al dago mundu osoan ezaguna den txakurren bat? Bai, ezta? Zein? Zergatik da ezaguna? Zer egin zuen ezaguna izateko?... Txakur ezagun batzuei buruzko kontuez hitz egingo duzue ataza honetan. Adibidez, ba al dakizu nor izan zen Laika? Eta ba al dakizu zein arrazatakoa den Snoopy? Lasai, laster jakingo duzu hori guztia eta gehiago!



- Snoopy, Laika... zein txakur gehiago ezagutzen da mundu osoan? Arbelean zerrendatu.
- Hemen dituzu zortzi txakur ezagunen argazkiak eta marrazkiak. Azpian berauen izenak dituzu. Ea lotzen duzun bakoitza bere izenarekin. Gero, esan txakur hauei buruz dakizun guztia.



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....



.....

SCOOBY-DOO / LAIKA / SNOOPY / LASSIE / PLUTO / IDEFIX / RIN TIN TIN / MILU

- Hemengo testu honetan txakur horiei buruzko kontuak irakurriko dituzu. Ea esaten duzun zati bakoitza zein txakurri buruzkoa den. Beraz, zati bakoitzari zuk uste duzun txakurraren izena jarri, hutsuneetan falta dena ere idatzi, eta txakurraren argazkia ondoan itsatsi.

TXAKUR EZAGUNAK



.....

Ausarta, ile leun eta kafe-koloreko begiak zituen. Eskoziar herentzia zeukan aktore ipar-amerikar hau,, telebista zein zinema munduko pertsonaiarik ezagun eta maitagarrienetariko bat dugu.

.....1943an agertu zen lehenengoz pantailan, "..... come home" filmean ("..... etxera itzuli da"). Film horretan, bere adoreak, adimenak eta fideltasunak zinema munduko izar bihurtu zuten berehala.

..... txakur emea zen filmetan, baina beti txakur ar batek egiten zuen bere papera. Lehenengo txakurra Pal izeneko collie ar eder bat izan zen ("adiskidea"), 300 hautagairen artean aukeratu zutena. Ekoizleek txakur arra aukeratu zuten, erakargarriagoak izaten direlako, adimen gutxiagokoak izanda ere.

Une horretatik aurrera, geroko guztiak Pal txakurraren ondorengoak izan ziren. Hala ere, bakar batzuek baino ezin izan zuten -ren papera egin, aurpegiko orbain zuriagatik.

.....-k eszena arriskutsuak egiteko ordezkioak zituen.



.....

.....,-en txakurtxo da. Beti joaten da-ekin eta-ekin euren bidaietan, nahiz eta-ek beti ezetz esan, txikiegia izateagatik.

Oso animalia sentibera da, naturaren defendatzaile amorratua. Ez zaio zuhaitzak botatzea gustatzen.



.....

1957ko azaroaren 3an Sobietar Batasunak gidatutako lehenengo ontzia bidali zuen espaziora. Ontzia-
ren izena "Sputnik 2" zen, eta gidari bakarraren izena, txakur errusiar ospetsua.

Errusiarren eginkizun nagusia izpi kosmikoak eta eguzkiaren erradiazioa ikertzea zen, temperatura eta presioa aztertzea. kabina baten barruan zegoen, arnes berezi batekin lotuta, eta janaria eta ura hartzeko aukera zeukan. Zientzialariek gorputzean elektrodoak jarri zizkioten, arazorik ez zeukalako ikusteko.

Hala ere, inork ez daki oso ziur zenbat denbora iraun zuen bizirik, eta bertsio asko daude. Batzuek esaten dute bere azken jatekoak pozoia zeukala, betiko lo uzteko. Beste batzuen ustez, kabinan gasak bota zituzten minik gabe hiltzeko, eta badaude beste batzuk oxigenorik gabe geratu eta ito egin zela pentsatzen dutenak. Arrazoia edozein izanda ere, ezin dugu ahaztu txakur horrek espazioaren konkistan izan zuen garrantzia.

"Sputnik 2" ontziak 163 eguneko bidaia egin zuen, 2.370 orbita bete, eta 100 milioi kilometro egin zituen gutxi gorabehera. Lurra ordu bete eta hogeita hamabost minuturo inguratzen zuen, orbita eliptikoa eginez.

1958ko apirilaren 14an, satelitea luraren atmosferan sartu zen berriro, eta-ren gorputza barruan zuela erre zen.

..... izena lajat hitz errusiarretik dator ("zaunka egin"), hau da, "zaunka egiten duena" esan nahi du, gutxi gorabehera. Antza denez, eta beste txakur batzuk Moscuco kaleetan batu zituzten, eta hautaketa baten ondoren, gure txakurtxo hau espazio-proiektu sobietarrean sartu zuten. "Sputnik 2" satelitean orbitan jarri aurretik, hezi egin zuten, eta oso ondo tratatu omen zuten.



.....

Komikietako heroia, fox terrier arrazakoa,-en lagun ona.

Gaztelaniaz deitzen diote, frantsesez, eta alemanez Bobbie.

1929an "..... sobietarren herrialdean" argitaratu zenetik, komikietako heroi mitiko bat jaio zen, kazetaria, beti bere txakur leialak lagunduta.

.....-ri ez zaio hainbeste gustatzen abentura; lasaitasuna nahi izaten du, batez ere eta ez da bere jabearen ekimenez fidatzen. Batzuetan-k zalantza asko izaten ditu, baina berehala bazter-tzen ditu arriskutik salbatzeko. Oso txakur azkarra eta ausarta denez, beti lortzen du bere jabea arazoetatik ateratzea.

..... oso whiskizalea da.

Txakurra eta jabea hain lotuta egonik, urte askotan euren istorioen izena "..... eta-ren abenturak" izan zen.

Pertsonaia horien egilea Hergé ezaguna izan zen (1907 - 1983), Georges Rémi-ren ezizena, komikieta-ko marrazkilari eta gidoigile Belgikarra, komiki modernoaren aitzindaria.



.....

..... Hollywoodeko beste izar bat izan zen, artzai-txakur alemaniarra. Film askotako protagonis-ta izan zen. Film horietako protagonista Rusty kabua zen, indioek tren bat eraso zutenean bizirik gera-tu zen ume bat. Rusty kabuak korneta jotzen zuen Ford Apache-n. bere lagunik onena zen, eta zalditeriako 101 erregimentuko maskota. Inguruko gaizkileen aurka (apatxeak barne, lehengo bakeroen filmetan gertatzen zen moduan) borrokan laguntzen zien soldaduei.

Lehenengo txakurra soldadu estatubatuar batek batu zuen Alemaniako trintxera bate-an, I. Mundu Gerran. Soldadu honek gerra bukatu ondoren etxera eraman zuen txakurra, eta 1920 inguruan zinema munduko izarrik handienetarikoa bilakatu zen. Hamasei urte zeuzkala hil zen, eta Parisen eman zioten lurra, animalientzako hilerri batean.



.....

Hanna Barberaren marrazki bizidunetako pertsonaia dugu txakurra, detektibe-lanetan ibiltzen den daniar handia.

Bai, hala da, daniar handi itzela eta baldarra da. beldurrak jota ibiltzen da normalean Misterios S.A.-ko maskota moduan, lau detektibe gazteren laguntzaile. Maitagarria da, eta, era bere-an, koldarra.-gaileta baten truke hartzen du parte kasu beldurgarrietan.

Munstro, deabru, sorgin, mamu eta bere itzalari ere beldurra izan arren, aktore dramatiko bezala aritua da. Are gehiago, bere koldarkeriagatik da hain aktore ona. Adibidez, gaixo itxura har dezake, eginkizun beldurgarri batera ez joateagatik. Zorionez,-k beti gaintzen du bere beldurra eta lagunei laguntzen die kasu guztiei irtenbidea aurkitzen.

.....-ren esaldirik gogokoena honako hauek dira: ".....", "..... -Gaileta" eta "Glup!".



.....

..... komikietako pertsonaia da, beagle arrazakoa. 1950ean argitaratu zen lehenengoz.

Txakur irekia dugu Eginkizun guztietan da oso trebea, bere etxetxoaren gainean ametsetan dagoenetan behintzat. Izan ere,-k badauka bere etxetxoa, baina ez da sekula barruan sartzen, klaustrofobia dauka eta. Bere zaletasunik handiena golfean ibiltzea da, baita bere jabearen beisbol-taldean parte hartzea ere. Boloetan ibiltzen ere ikus dezakegu, edo mediku, abokatu, gidari, boy-scout... jantzita. Gailetak izugarri gustatzen zaizkio, kokozkoak izan ezik. Nobela idazlea ere bada, baina ez da oso trebea ("Gaua zen, eta, hala ere, euria ari zuen...").

.....-ren lagunik handiena Emilio txoria da, eta askotan ikusten dugu komikietan harekin hizketan. Bestalde, txakurtxo honen jabea da, baina-k sekula ez du gogoratzen bere jabearen izena, eta "aurpegi biribila duen mutiko hori" edo "janaria ekartzen didan aurpegi biribildun mutiko hori" esaten dio. Alboko katuari ez dio beldurrik, baina errespetuz begiratzen dio.

Komiki honen egilea Charles Schulz zen. Esan dugun bezala, 1950ean argitaratu zen lehenengoz Peanuts komiki-tira, eta, harrezkero, eta bere txakur ezagunak egin ziren mundu osoan.



.....

Txakur-leialtasunaren sinboloa da Esanekoa, apala eta lasaia, ez zen Disneyko izar izateko jaio, bigarren mailako aktore izateko baino. Baina denborak eta-ren maskota moduan erakutsitako zintzotasunak paper protagonista batzuk eman zizkioten.

..... 1930eko abuztuaren 18an agertu zen.-k, Disneyko super-izarrak, maskota bat behar zuelako.

Ehiza-txakurra da, argala, kafesne kolorekoa da eta belarri beltzak ditu. Ez dauka ilerik (hain motza denez, ez zaio ikusten), oso buztan luzea eta fina du. Lepoaren inguruan lepoko gogor bat dauka.

..... sentibera da, ausarta baino ausartagoa, eta baita burugogorra ere. mai-nontzia da eta tentel xamarra. Ez du hitz egiten, inoiz saiakeraren bat egin eta ikusleagoak nahiko gaizki erantzun baitzuen.

- Hormetan testu osoa jarriko du irakasleak. Egin duzuna zuzendu.
- Zein da gehien gustatzen zaizun txakur ezaguna? Zergatik? Eta gutxien gustatzen zaizuna? Zergatik? Erantzunak pentsatu, eta zure azalpena prestatu.

...

- Orain, launaka jarriko zarete. Azalpenak txandaka egin, eta datuak hemengo papertxo hauetan idatziko dituzue:

Nork esan du?	Zein da gehien gustatzen zaion txakurra	Zergatik gustatzen zaio txakur hori?	Zein da gutxien gustatzen zaion txakurra?	Zergatik ez zaio gustatzen?

- Orain, papertxoak nahastu, eta beste talde batekoei eman, ordenan jartzeko. Zuek ere beste papertxo batzuk edukiko dituzue ordenatzeko. Zuen ustez, zer esan du talde horretako lagun bakoitzak?
- Beste guztiei azaldu. Zuen paperak ondo ordenatu al dituzte beste talde horretan?
- Hemen dituzu testuetan agertu diren zortzi txakurren izenak. Nolakoak dira txakur hauek? Aukeratu beheko multzotik.

Scooby-Doo
Laika
Snoopy
Lassie

Pluto
Idefix
Rin Tin Tin
Milu

NOLAKOAK DIRA?

- | | | |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Ehiza-txakurra• Maitagarria• Adimentsua• Whiskizalea• Emea• Ederra• Arra• Itzela• Txikia• Sentibera• Mainontzia• Ausarta | <ul style="list-style-type: none">• Lagun ona• Azkarra• Erakargarria• Lasai• Baldarra• Koldarra• Tentela• Aktore ona• Trebea• Esanekoa• Leiala• Apala | <ul style="list-style-type: none">• Buztan luzea eta fina• Argala• Kafesne kolorekoa• Belarri beltza• Adoretsua• Naturaren defendatzaile amorratua• Burugogorra• Kale-txakurra• Zintzoa |
|---|--|---|

1. ATAZA: IDEFIXEN ABENTURAK

- Gero, Asterix eta Kleopatra komikiko hainbat pasartetan, Idefixek egin zituen gauzak irakurriko dituzue. Zuen ustez, hemengo kontu hauetako zein gertatuko dira komiki zati horietan? Eta zein ez?

Ez baduzue Idefix oso ondo ezagutzen, zuen artean hitz egin, lehenengo eta behin: zer dakizue txakurtxo horri buruz? Nolakoa da? Zer egiten du?...

Hala ere, lasai, adierazpenak ondo irakurrita oso erraza baita gertatuko direnak eta ez direnak bereiztea.

Abentura horietan...

1. Idefixek ez zuen edabe magikorik edan, eta beste txakur handi batek kosk egin zion.
2. Asterixekin eta Obelixekin jolasten ibili zen piramideetako harriekin.
3. Kleopatra ikusi zuenean, Idefix horren hankak miazkatzen hasi zen, eta bueltan bidali zuten Belgikara.
4. Esfinge bat ikusi, eta Idefixek marmar egin zion.
5. Idefixek egun batean egunkaria, etxeko zapatilak eta tabakoa eraman zizkion Obelixerik.
6. Idefixek bere lagunak atera zituen piramide batetik, Obelixek ateratzerakoan hezur bat agindu ziolako.
7. Idefixek hezur pila bat jan zuen, bere lagunak piramide batetik ateratzeagatik.
8. Idefixek mezu bat eraman zion Kleopatrari, lepoan lotuta.
9. Basamortuan zegoela, Idefixek telefono-kabina bat topatu, eta usain egin zion.
10. Asterixek eta Obelixek gauza bat ezkutatu zuten lurpean, Egipton, inork ez ikusteko, eta bukatu ondoren Idefix leku horretan lurra haztakatzen hasi zen.

- Orain, talde bakoitzak komiki-zati bana irakurriko du. Irakasleak esango dizue zein zati (3. eranskina). Nola kontatuko diezue besteei? Gero, haiekin batu.

- Gertaerak elkarri kontatu.

- Hasierako taldeetan jarrita, begiratu ea hamar adierazpen horietatik zeintzuk gertatu diren komiki-zati horietan. Zuek pentsatu dituzuenak al dira?

- Orain, begiratu berriro adierazpen horiek, eta azpimarratu txakurrak egiten dituen gauzak. Zerrenda egin arbelean.

3. Material osagarria

D

- Zerrenda osatzeko, begiratu beste zerrenda horri. Horko ekintzarik gehienak txakurrek egiten dituzte, baina badago bat guk egiten duguna eta txakurrek ez, beste bat katuek egiten dutena eta txakurrek ez, eta hirugarren bat astoek egiten dutena eta txakurrek ez. Zein da zein?

- Korrika egin
- Eraso egin
- Hezurak lurpean ezkutatu
- Arrantza egin
- Hazka egin
- Txakur handiangoekin borrokatu
- Miauka aritu
- Hitz egin
- Belarriak tentetu
- Isatsari eragin

- Saiatu hitz guztien adibideak jartzen, guztien artean.

- Bukatzeko, binaka jarri, eta zuentzat ezezagunenak diren ekintzak azpimarratu. Inkesta bat prestatu hitz horiekin, eta euskaltegiko edo auzoko jendeari galdetu. Adibidez:

- **Zure txakurrak astean zenbat aldiz jaten du haragia?**
- **Zure txakurrak zenbat aldiz miazkatzen zaitu egunean?...**

...

- **Nola moldatuko zara hurrengo egoera hauetan? Erraz egingo duzu? ideia orokorrak ulertu edo adieraziko dituzu? Kosta egingo zaizu?...**

1. Internetetik hartutako testu motzak irakurri dituzu. Berriro horrelakoren bat topatuz gero, zer moduz moldatuko zara? Zer uste duzu?

.....

2. Irratian eguneroko kontuei buruzko elkarrizketaren bat entzuten baduzu, zer moduz moldatuko zara? Zer uste duzu?

.....

3. Txakurren bat deskribatzeko esaten badizute (nolakoa den, zer egiten duen, zergatik ezagutzen duzun...), zer moduz moldatuko zara? Zer uste duzu?

.....

4. Zerbaiti buruzko iritzia edo zerbaiti buruz uste duzuna esateko eskatzen badizute, zer moduz moldatuko zara? Zer uste duzu?

.....

- **Erantzun galdera hauei:**

5. Adierazi ikastunitate honetan gehien gustatu zaizkizun hiru gauza (eta zergatik):

.....

6. Esan ikastunitate honetan gutxien gustatu zaizkizun hiru gauza (eta zergatik):

.....

7. Zure iritziz, zer izan da probetxugarria? Zergatik?

.....

8. Zertan hobetu behar duzula uste duzu? Zergatik?

.....

5. Eranskinak (1)

A TALDEAREN FITXA

Txakur-jabeak	Zertarako behar dute txakurra?	Nolakoak dira txakur horiek?
Baserritarrak, zinpeko zaindaria	Beldurgarriak
.....	Lanerako
Mingain luzeko txakurrak gustuko dituztenak	
Haurrak	Txikiak, jostariak, iletsuak
Ez dute jaberik	

Txakurren izen-motak	Adibideak
Telebistan entzundako izenak
.....	Tony, Blacky, Bobby, Charlie
Anglizismoen aurkako jarrera (hippya)
.....	Lagun, Ikatz, Elur, Hartz, Lukas, Iraultza, Kemen
Ehiztarien txakurrak
.....	Rocky, Rambo
Katuak diruditen txakurrak

B TALDEAREN FITXA

Txakur-jabeak	Zertarako behar dute txakurra?	Nolakoak dira txakur horiek?
.....	Zainketa-lanetarako
Artzainak, ehiztariak, aduanetako guardia zibilak	Biziak
Mingain luzeko txakurrak gustuko dituztenak		Mermeladeroak, mingain luzekoak
.....	Jolasteko
.....		Katuak diruditenak

Txakurren izen-motak	Adibideak
.....	Pikatxu, Oliber
Anglizismoak
.....	Kunta, Shiba, Buda, Stalin
Euskal izen jatorrak
.....	Piston, Kartutxo, Alai
Zinpeko zaindarien txakurrak
.....	Ez dute izenik izaten

Txakurren argazkiak

A TALDEA



.....



teckela



.....



lebrak afganiarra



.....



pekinesa



shar peia



.....



basset hounda



.....



cocker spaniel ingelesa



.....



.....



skye terrierra



bulldoga



.....



.....



colliea




dalmata



.....

Txakurren argazkiak

B TALDEA



kanitxea



.....



dobermana



.....



ihassa apsoa



.....



.....



pinscherra



.....



cocker spaniel amerikarra



.....



setter irlandarra



galgoa



.....



.....



alaskan mamalutea



chihuahua



.....




.....



bull-terrierra





IDEFIX
B taldea



IDEFIX
C taldea





IDEFIX

D taldea



OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for text entry.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea


Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ISBN: 84-95827-66-2



9 788495 827661